

## UDALBATZAKO IDAZKARI NAGUSIARI

Talde Popularreko bozeramaile Borja Sémpér Pascual naizen honek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten dut, osoko bilkuran aztertzeko. Gune Publikoetako Batzordeak (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) uztailaren 15ean izandako bilkuran egindako INTERPELAZIOAREN ondorio da mozioa.

### JUSTIFIKAZIOA

2017ko urtarrilean, Guauuuu parkea inauguratu zuten Donostian, txakurrentzako lehen parkea, ia 1.000 metro koadroko azalera duena eta, besteak beste, Agility ariketarako erabiltzeko. Hasieratik, Amara auzoko parketik hurbil dauden auzotar askok kexuak adierazi zituzten, zakur eta jabe ugari zegoelako, eta, askotan, xedatutako ordutegitik kanpo, parkearen erabilerak errespetatu gabe. Kexak areagotu egin dira azken urtean, besteak beste, txakurrak Agility parke batean ibiltzea nahi duten guztiak erakartzeko gunea delako Guauuuu parkea. Eta, aldi berean, bere berezitasunagatik, babes akustiko bereziko eremutzat hartuta dago Amara auzoa.

Ez dugu parke horrek duen txakur espezifikotasuna desagerrarazi nahi, zalantzarik gabe, uztailaren 15ean egindako Batzordean argi geratu zenez, Agility eremua alde egokiago batera eraman baizik, handiagoa izanda, Agility gunera doazen txakur kopuru handi bat hartzeko gai izan dadin.

Azaldutakoaren arabera, eta goian agertutako asmoei buruz batzordean erantzun ez zutenez, honako hau aurkezten dugu

### KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak alkateari eta Gobernu taldeari hertsatuki eskatzen die Guauuuu parkeko Agility gunea ahalik eta azkarren lekuz aldatzea, Ametzagaina aldera, azalera handiagoa izateaz gain, bizitokietatik behar bezain urrun dago eta.
2. Donostiako Udalbatzak alkateari eta Gobernu taldeari hertsatuki eskatzen die Guauuuu parkearen txakur espezifikotasunari eusteko.

Donostian, 2019ko martxoaren 16an

Borja Sémpér Pascual,

Talde Popularraren bozeramailea.